



# ENPRESEN konfiantza

2019KO 4. HIRUHILEKORAKO  
AURREIKUSPENAK

Ikerketa Departamentua – LABORAL Kutxa


# 2019KO 4. HIRUHILEKORAKO AURREIKUSPENAK



## 0 | INGURUNEA


LABORAL Kutxak Industria Konfiantzari buruzko inkesta egin die Euskal Autonomia Erkidegoko enpresei, **2019ko laugarren hiruhilekorako** dituzten aurreikuspenen berri izateko. Ondorio interesgarriak eman ditu, eta aurreko hiruhilekokoan antzeko emaitzak. Jarraian, ondorio nagusien laburpen txikia eskainiko dizuegu.

INGURUNE EKONOMIKOari buruzko enpresen aurreikuspenei dagokienez, % 52,2k uste du egoerak bere horretan jarraituko duela, eta % 6,5ek hobetu egingo dela. Beraz, aurreko hiruhilekoan baino ikuspegi ezkorragoa da nagusi.




# 1 FAKTURAZIOA

Enpresek FAKTURAZIOAri buruz dituzten aurreikuspenak aldekoak dira, **2019ko laugarren hiruhilekoari** begira. Hala, % 51,6ren iritziz, fakturazioan ez da aldaketarik egongo, eta, % 31ren ustez, hobera egingo du. Beraz, fakturazio txarragoa espero duten enpresak % 17,4 dira.




## 2 | JARDUERA

Aurreko adierazlearekin bat, eta **2019ko laugarren hiruhilekoan** espero den JARDUERAREN bilakaeraren aurrean, % 58,7k uste du ez dela aldaketarik egingo, eta % 17,6k hobera egingo duela. Beraz, laginaren % 23,7k uste du jarduerak okerrera egingo duela, eta **aurreko hiruhilekoan baino nabarmen handiagoa da ehuneko hori.**




### 3 | ESKABIDEAK

Erantzunok ikusita, zalantza hau sortu zaigu: zer portaera izango dute salmenten kopuruek eta prezioek, hau da, fakturazioaren eta jardueraren inguruko aurreikuspenen oinarrian dauden gakoek? Emaitzek diote ESKABIDEen bolumenak arrazoizko portaera izatea espero dutela enpresek. Ondoren agertzen den irudian ikus daitekeenez, inkestari erantzun dioten % 56,2k uste du bolumenean ez dela aldaketarik egongo, eta % 27,2k hobera egingo duela. Enpresen % 16,6k, ordea, eskabideen bolumenak behera egingo duela uste du.




## 4 | PREZIOAK

PREZIOEI dagokienez, egonkor jarraituko dutela uste dute gehienek; izan ere, inkestari erantzun diotenen %73,3k uste du prezioek bere horretan jarraituko dutela **laugarren hiruhilekoan**. Gainerako enpresetatik, % 13,4k uste du prezioak handiagoak izango direla, eta % 13,4k txikiagoak izango direla.



## 5 ERRENTAGARRITASUNA

Eragiketen ERRENTAGARRITASUNARI buruzko aurreikuspenei erreparatuta, erantzunen % 66,5en arabera ez da aldaketarik egongo; enpresen % 14,4k uste du handiagoa izango dela eta % 19,1ek errendimendu txikiagoa lortuko duela.






## 6 | INBERTSIOA


Orain arte aztertutako datuen arabera, egoera nahiko positiboa da, **aurreko hiruhilekokoaren antzekoa**. Hortaz, ondoren ikusiko dugunez, badirudi enpresek ahalmen produktiboari eta, ondorioz, langileen kopuruari eusteko asmoa dutela.

INBERTSIOaren bolumenari dagokionez, enpresen % 68,3k uste du eutsi egingo diotela **2019ko laugarren hiruhilekoan**. % 16,6k, berriz, inbertsio-bolumenak gora egitea espero du. Horrenbestez, gainerako % 15,1ak uste du behera egingo duela



## 7 ENPLEGUA

Azkenik, enpresen % 78,1ek erantzun du ENPLEGUAn ez duela aldaketarik espero; % 13,1ek langile-taldea handitzeko itxaropena du eta % 8,8k guztiz kontrakoa gitea aurreikusten du.




2019KO BESTE ADIERAZLE BATZUK



## 8 KONFIANTZA-INDIZEA ETA ESPORTAZIOEN BILAKAERA


Aurreko adierazleak (inguruneari buruzko iritzia izan ezik) gehitu eta haztatzen baditugu, **52**ko konfiantza-indizea lortuko dugu. Indizeak igoera txikia izan du aurreko hiruhilekoan izandakoarekin alderatuta (**51**). Interpretazioa hauxe da: enpresek ikuspegi pixka bat baikorragoa dute ekonomiaren bilakaerari buruz, **2019ko laugarren hiruhilekoari** begira. Gainera, indizearen balioa 50etik gora dagoenez, hedatze-eremuan gaude, beste eremu geografiko interesgarri batzuetan lortutako datuekin bat. Espainian, esaterako, 52,6ko datua lortu zen abuztuan, eta Eurogunean 51,9koa hil berean.

Amaitzeko, inkestako beste gai batzuetan izandako emaitzak aurkeztuko ditugu, aurretik azaldutako indizearekin zerikusirik ez dutenak. Azken urteko ESPORTAZIOen bilakaerari dagokionez, inkestaturen % 58,4k uste du bere horretan jarraitu duela eta % 16,9k hobera egin duela. % 24,7ren iritzian, kanpoko salmentek txarrera egin dute.




## 9 BERRIKUNTZA ETA I+G ALORREKO EKIMENAK

Azken urtean BERRIKUNTZAri edo I+Gko EKIMENEi bideraturiko salmenten ehunekoari dagokionez, inkestaturen % 70 balio minimoetan kokatzen da: % 0 eta % 1 artean. Bestalde, % 8,6k salmenten % 5 baino gehiago bideratzen du arlo horietara.




## 10 BEZEROEI KOB RATZEKO EPEAREN BILAKAERA

Inkestari erantzun diotenen % 76,1entzat, bezeroei KOB RATZEKO EPEAn ez da aldaketarik egon azken urte honetan, eta enpresen % 18,2ren esanetan, epea luzatu egin da. Hala, enpresen % 5,7k soilik erantzun du kobratzeko epea laburtu egin dela.



## 11 | BANKUEN FINANTZAKETA ESKURATZEKO ERRAZTASUNA

Amaitzeko, inkestaturen % 75,8k erantzun du BANKUEN FINANTZAKETA ESKURATZEKO AUKERAK berdin jarraitu duela azken urtean. Gainerako enpresen artean, % 13k dio hobetu egin dela, eta % 11,2k lehen baino zailagoa dela finantzaketa lortzea.






2019AN ADIERAZLEAK IZAN DUEN  
BILAKAERAREN LABURPEN-GRAFIKOA



## 12 ENPRESEN AURREIKUSPENAK

Grafiko honetan, azertu ditugun azken 2 hiruhilekoetako aurreikuspenen adierazle partzialen eta osoen balioak ikus daitezke.



## Fitxa teknikoa eta metodologia

---

EAEko 400 enpresari egin zaie inkesta.

---